

# NESTOR BASTERRETxea

88 urte eta geroari so.

| SUSTRAI COLINA |  
Argazkia: Dani Blanco



## «Artistak bere mendearekin haserre bizi behar du»

**Ai, artista eta bere mundua.**

Fatalitate bat. Artista artista bada sortzailea da, eta sortzailea ez bada arte egile bat baino ez. Artearen itsaso zoragarriari zure mililitroa aportatzen saiatu behar zara. Ahaleginaren ondorioa: artistak gizarteari aurre hartzen diola beti.

**Kontuz, dena dakienak gezurak ere jakiten ditu eta!**

Nola azaldu Van Goghek, bizi zeno, deus ez saldu izana? Ez hori bakarrik, zure eskulturen aurretik pasa, eta “hori nire semeak ere egingo likek!” egiten dizute iseka. Nik beti zoriontzen ditut horrelako seme bat izateagatik.

**Eskerrak kritikariak gure gustuak bideratzen dituzten...**

Kritikariakin gutxi fio. Esaterako, oraindik ez dut ulertzen nola dauzkaten batzuk olinpoan. Hor dago Botero, ipurdiak marraztu eta marraztuz super milionario eginda, nik sekula hain gauza tonto eta baldarrik ikusi ez dudan arren.

**Kritikariak egiten ez badute, politikariak salbatu beharko dute artea.**

Politikarien %99k ez du arteaz piperrik ulertzen. Badirudi politikari karneta eskuratzeko baldintza bat arteaz paso egitea dela! Hori bai, gero euren bulegoetan jartzeko lanak erosten dizkizute, lagunaren aurrean moderno eta kultu agertzeko.

**Agertzen duzun panorama agertuta, eskerrak**

**arteak heriotzan ez pentsatzeko balio dizun.**

Ezinbestean sarri-sarri oroitzen naiz heriotzaz, baina arteak horretan pentsatuz porrot ez egiten laguntzen dit. Dena den, eskerrak ez dagoen beste mundu edo dena delakorik, ze berriz faxista madarikatu horiekin topatu beharrak nire onetik aterako ninduke!

**Mamuak beti mamu, dio nire psikoanalistak.**

Etsairik izan gabe bizitzeko pretentsioa izan dut, eta baneuzkala ohartu nintzenean, jota gelditu nintzen. Kabroiak! Orain, Bildukoa izateagatik jende batek agurra ukatzen dit, baina ze arraio, bere konbikzioekiko zintzoa ez dena txotxongiloa baino ez da.

**Anaiarteko gerrak omen dira baretzen zailenak.**

Ni abertzale guztiak batzearen aldekoa naiz. Denak batuz gero, badakizu zein erraz irabaziko genituzkeen hauteskunde oro eta zenbat sufrimendu aurreztuko genukeen? Baina ez, bakoitza berera. Pentsa, zatiketa honen erruz, orain ezingo genuke *Ama Lur* egin.

**Alegia, politika ez, artea eta lana direla zure ama lurra!**

Lan serioa oso intimoa da, zure burua etengabe proban jartzea, zure intimitatea jorratzea. Munduari leihotik begiratu behar diozu, baina leihoak itxita, hainbeste informaziorekin bestea errepikatzen itota amaitzen duzulako. Horregatik, artistak bere mendearekin haserre bizi behar du. ■

